



IBIAK ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZA

OHARRA: Dokumentu hau informazioa emateko helburuarekin eginda dago. Aldizkari ofizialetan argitaratutako testu onartuek bakarrik dute balio legala

Onartuta: Udalbatzak 1994/03/28an

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 1994/05/10ean

Akats zuzenketa:

18. artikulua, 19. artikulua

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 1994/07/12an

Aldaketak:

1. aldaketa:

2, 3, 4, 5, 6, 7, 9, 11, 12, 13, 14, 17, 18, 19, 21, 22 artikulua eta Amaierako xedapena aldatu dira.

Onartuta: Udalbatzak 2013/10/28an

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2014/01/21ean

IBIAK ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZA

1. *artikulua.*

Bergarako herrian ibiak antolatzea du xedetzat ordenantza honek, baita ere ibi-baimenak emateko eskakizunak, baimenen indarraldia eta iraupena arautzea.

2. *artikulua.*

Ondorio horietarako, espazio publikoaren erreserba oro joko da ibitzat, ibilgailuak ibia duten higiezinetan (eraikin edo orubeetan) sartzea eta haietatik irtetea beste helbururik ez duena, betiere seinaleztatuta egonda plaka batez eta/edo seinaleztapen horizontalez.

3. *artikulua.*

Ibi-baimena ematea diskrezionala, prekariokoa eta hirugarrenei kalterik eragin gabea izango da beti.

4. *artikulua.*

Ibi-baimenak ez du inolako eskubide subjektiborik sortzen eta titularrak ibia kendu egin beharko du Udalak hala eskatzen dionean, inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izan gabe.

Araua urratu duen ibilgailuari, dagokion ordenantzan ezarritako zigorra jartzea besterik ez du ekarriko ibi-emateak.

5. *artikulua.*

Gutziz debekatuta dago ibia normal erabiltzea eragotziko duen ibilgailu-aparkatzea, betiere ibiaren ezaugarriak (14. artikulua d) puntuan zehaztuta datozenak) toki agerian badaude.

6. *artikulua.*

Ibi-baimena eskuratzeko, nor bere eskabidea aurkeztu beharko du Udalak emandako inprimakian, eta honako hauek egiaztatu:

- a) Garatzen duten jardueran aritzeko udal baimena dutela.
- b) Jardueraren izaeragatik ibilgailuek nahitaez sartzten eta irteten ibili behar dutela.

Bi hilabeteko epea igarotakoan Udalak ez badio eskabideari erantzun, eskabidea ezetsizat joko da eta eskatzaileak, interesatuta badago, beste eskabide bat aurkeztu beharko du.

7. *artikulua*

Gutziz debekatuta dago merkataritza-beheak ibilgailuak gordetzeko erabiltzea.

Dena den, erabilera horretarako baimena duten kaleetan, eta Udaltzaingoak trafiko eta aparkamendu beharrei eragozpenik jarriko ez diela zurituko duen txostena egiten badu, ibiak ematen jarraituko da, betiere Udalak, Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiaren bidez, kontrako ebazpenik hartzen ez duen bitartean. Erabaki hori hartzeak ez dio ibiaren titularrari inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik emango.

8. *artikulua*

Ibiak ezartzeak, zaintzeak, berritzeak, kentzeak eta seinaleak ipintzeak sortuko dituzten gastuak eskatzaileen kontura eta haien kargura izango dira.

9. *artikulua*

Ibiaren titularrak zoladura eta plaka zaintzeko beharra izango du.

10. *artikulua*

Lokala bera, lokalaren plaza kopurua eta emandako aprobetxamenduaren titularra aldatzen badira eta/edo baimen-emateko espedientearen beste edozein ezaugarri aldatzen bada, horren aitortpena aurkeztu beharko da.

11. artikulua

Ibi-baimenak urte bakoitzeko abenduaren 31ra arte egongo dira indarrean, baldin eta interesatuak bestelakorik eskatzen ez badu edo Udalak beste horrelako erabakirik hartzen ez badu, eta baimenak tazituki luzatuko dira urtez urte.

12. artikulua.

Ibi-baimena iraungi edo baliogabetu ondoren, plaka adierazleak itzuli egin beharko dira Udalak ezarritako epean; eta itzuli ezean, Udalak berak kenduko ditu beste izapiderik gabe.

13. artikulua.

Espaloia errebatatu beharko balitz, titularrak izendatuta horretarako gai den pertsona batek egin beharko luke.

Errebatatzeko lanak guztiz bukatutakoan Udaleko zerbitzu teknikoei horren berri emango zaie egindako lanak ikuskatu eta txostena egin dezaten, eta aldeko txostena egindakoa eta indarreko ordenantza fiskalak ezarritako prezio publikoa ordaindu ondoren ibi-baimena emango zaie.

Baimen horren ezaugarri diren plakak, kostua ordaindu eta gero emango zaizkie.

14. artikulua

Espaloia errebatatzeko lanak egitean baldintza hauek bete behar dira:

- a) Zintarria errebatatzea: zintarria ibiaren zabalera osoan errebatatu behar da, galtzadaren mailatik 3 eta 5 cm bitartean gelditu arte.
- b) Espaloia sendotzea: espaloia zoladurak osagai hauek edukiko ditu: 25 cm harrobiko material zanpatu eta 15 cm hormigoizko zolarri, 175 k/cm²-ko ezaugarritzko erresistentziakoa eta mailazoduna.
- c) Espaloia jarraipena: espaloian dagoen zoladura berriz jarriko da (baldosa, asfalto urtua, eta abar), espaloia gainontzeko zoladurarekin etenik egon ez dadin.
- d) Galtzadan seinaleak ipintzea: ibiaren irteerako zoladuraren gainean seinale horizontal bat ezarri behar da, gurutze formakoa, horia, ibia dagoela adieraziko duena, bai eta zintarria 50 cm-ko zerrenda horiz pintatu ere.

15. artikulua

Ibi bakoitzaren luzera gehienekoa, zintarriaren gainean neurtuta, ezin izango da eraikinaren sarrerak duen zabalera % 25ean gehitua baino handiagoa izan.

16. artikulua

Debekatuta dago behin-behineko edo unean uneko instalazioak erabiltzea ibilgailuak bide publikotik eraikinetara edo alderantziz pasatzeko, hala nola, elementu mugikorak, arrapalak, egurrak eta abar, berariazko baimena lortzen den arrazoi zurututakoetan izan ezik.

17. artikulua

Ibiaren titularrak ezinbestean honako hauek egin behar ditu:

- a) Zoladura eta seinale-diskoa egoera onean eduki.
- b) Zintarria eta baimenaren gainontzeko seinaleak eta adierazgarriak pintatu.
- c) Zoladura edo pintura berri Udalak hala agintzen dionean.
- d) Ibiaren Udalak agintzen dizkion ohizko nahiz aparteko lan guztiak egin.
- e) Espaloia eta zintarria jatorrizko egoerara bihurtu, emandako ibi-baimena baliorik gabe utzi edo iraungi denean.
- f) Dagokion ordenantza fiskalean ezarritako tasak ordaindu.

18. artikulua

Behar den baimena eskuratu gabe espaloiak errebajutzen direnean, titular izatea dagokion pertsonari Udal Administrazioak eska diezaioke espaloia 15 eguneko epean, haren kontura, lehengo egoerara bihur dezala.

Aurreko paragrafoan hala esan bada ere, ordenantza honetan jarritako baldintzak betetzen badira, araua urratu duenak epe berean ibi-baimena eska lezake.

Jarritako hamabost eguneko epea amaituta baimenik eskatu ez bada, ez eta espaloia lehengo egoerara bihurtu ere, Udal Aginteak 3 euroko isuna ezarriko dio arau-urratzaileari bere hartan dirauen egun bakoitzeko.

19. artikulua

Ordenantza honen ondorioetarako, arau-urratze eta zigor arinak eta larriak bereiziko dira. Arau-urratze arintzat joko dira baimenik gabe egindako baina gero aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera legeztatutako espaloi-errebajeak.

Isunarekin zigortuko da, urtean ordaindu beharreko tasaren parekoarekin alegia.

Ordenantza honetan ezarritako beste edozein betebeharrak ez betetzea arau-urratze larritzat joko da eta baimenaren iraungipenarekin zigortuko da, 18. artikuluko azken paragrafoan ikusitako kasuan izan ezik, hori han ezarri bezala zigortuko baita.

20. artikulua

Arau-urratzeek eta zigorrek bi urteko epean preskribatuko dute larrien kasuan eta sei hilabetekoan arinen kasuan.

21. artikulua

Ordenantza honetan ikusitako zigorrak ezartzea alkatearen esku egongo da eta aurretik zigor espedientea tramitatu beharko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak eta Zigortzeko Eskumenaz Baliatzeko Jardunbidea Arautzeko Erregelamenduak ezarritakoaren arabera.

22. artikulua

Edukirik gabe gelditu da.

Amaierako xedapena

Ordenantza hau indarrean sartuko da testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoan eta Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko Legeak 70. artikuluko 2. zenbakian aipatutako tramiteak betetakoan.